

Adi! "Arrain batek baino oroimen
gutxiago" **Ipuin Kontaketa**
maiatzak 29an izango dugu **6-10**
urtekoentzat **18:00etan** Haur
Liburutegian.



Gonbidapenak
Haur liburutegian
eskaaaaaaaaatu!

IPUIN KONTAKETA

“ARRAIN BATEK BAINO OROIMEN GUTXIAGO”

Noiz: maiatzak 29 (asteartea), arratsaldeko 18:00etan

Non: Haur Liburutegia

6-10 urtekoentzat

***Gonbidapenak aldez aurretik eskatu**

Deskribapena:

“**Arrain batek baino oroimen gutxiago**” duela esaten zaio norbaiti etxeko giltzak barruan ahaztuta utzi eta kalera irteten denean. Edo babarrun-eltzea sutan zegoela ahaztu eta otordua sarritan erretzen zaionari. Edo erabateko bere despiste horretan, lanera kolore differenteko galtzerdiak jantzita agertzen denari, aurrenekoa jarri orduko ze koloretakoa aukeratu zuen ahaztu egin baitzaio, bigarrena jantzi aurretik.

Gauza serioetara etorriz, ordea, oroimen-galera da gure garaiotako desgraziarik handienetakoa, zahartzaroko dementziaren eraginez errealtitatetik, eta bide batez baita euren bizitzatik ere, aldentzen doazen adineko pertsona gero eta gehiago ikusten ditugunean. Alzheimerrak, eta gaitz horren ezaugarrietako bat horixe da, hain zuzen ere, oroimena galtzea, pertsonaren akabera dakar. Fisikoki hor dago, bai, baina bere gizatasuna ihesean doakio pixkanaka.

Pertsona bere oroimenak egiten du. Gizakiak gara, baina denbora jakin batean, horixe da izateko dugun modu bakarra; eta gizabanako bakoitzari batasuna eta denbora horretan iraunkortasuna ematen diona oroimena da. Oroimenik gabe, ez gara ezer, argi eta garbi. Eta gogoeta horrek berdin-berdin balio du gizartean kasurako ere.

Emanaldi honek ideia horixe transmititu nahi die haurrei eta gazteei kontakizun baten bidez. Ez da antzerki-obra bat berariaz (hori ere baden arren), ipuin edo kontakizun bat baizik. Ipuin-kontalariaren tradizioak erro sakonak ditu gure artean. Eta haur-antzerkiko formula hori baliatuz, kontu-kontalariaren eszenifikazioa egokitu dugu, ideia hori kontakizunetarako sentibera den entzuleriari azaltzeko.

Narratzaileak (amonak) historia bat kontatuko digu, ume batzuek egingo dizkioten galderen laguntzarekin: nolako herria izan zen leize-zuloetatik atera zena, erromatarrekin zibilizazioa ezagutu zuena, gerotzik bisigodoekin, frankoekin, musulmanekin, judutarrekin eta beste askorekin harremanak izan zituena (kulturazkoak batzuk, gerra girokoak bestetzuk), kultura, erlijioa, merkataritza... baina batez ere Europarekiko loturak ekarri zizkiguten erromesei ere atea irekitzen jakin zuena, ... orain ere bizi garen egunotaraino iristeko.

Arrainaren oroimena kontrapuntua da, ahaztuko bagenu zer izango ginatekeen erakusteko islatzen garen paretan sortzen dugun itzala. Oroimen hori galduko bagenu, eta jada gehiago izango ez bagina....

Memoriaren eta historiaren garrantzia transmititzea da obraren helburua. Balio propio horietan heztea, bestela esanda. Telebistaren eraginez oso ikus-entzunezkoa den baina geure errealtitate historiko eta kulturaletik oso urrun dagoen gaur egungo kultura honetan ohizkoak ez diren bizitzeko eta lan egiteko moduak ikusaraztea. Uneotaraino ekarri gaituen kulturaren presentzia eta duintasuna indartu eta sendotzea. Ikus-entzuleei geure kultura propioarekiko eta munduan duen pisuarekiko ulermenerako eta esanahiaz jabetzeko baliabideak eta bitartekoak eskaintza.

AKTOREAK: Hodei Unzueta, Alex Tello eta Ixabel Agirresarobe

“Menos memoria que un pez”,

se dice para describir a alguien que se deja las llaves dentro de casa. O se olvida de que dejó el puchero con las alubias al fuego, y se le queman cada dos por tres. O, en su despiste, llega al trabajo con calcetines de distinto color, porque después del primero ya se le olvidó cuál eligió antes de calzarse el segundo.

La pérdida de memoria es también, con mucho menos humor, la gran desgracia de nuestro tiempo, cuando vemos a personas mayores que se alejan de la realidad y de su vida por los estragos de la demencia senil. El Alzheimer, uno de cuyos rasgos es precisamente el extravío de la memoria, acaba con la persona. Físicamente está ahí, pero poco a poco le abandona su cualidad de ser humano.

La persona es su memoria. Somos seres en el tiempo; es la única forma que tenemos de ser; y la identidad que a cada individuo da unidad y permanencia en ese tiempo es la memoria. Sin ella, sencillamente, no somos nada. Esta reflexión sirve asimismo para las sociedades.

Esta representación trata de transmitir esta idea a los niños y jóvenes a través de un cuento. No es tanto una obra de teatro (que lo es) como un relato. La tradición del Cuentacuentos está muy arraigada entre nosotros. En esa fórmula de teatro infantil, hemos adoptado la escenificación del Cuentacuentos para explicar esta idea a un público receptivo a los relatos.

El narrador (amona), con la ayuda de las preguntas de unos niños, va contando la historia de un pueblo que salió de las cavernas, que conoció la civilización con los romanos, que mantuvo contactos más o menos culturales, más o menos belicosos, con visigodos, fracos, musulmanes, judíos y otros, que supo abrir las puertas a los peregrinos que trajeron cultura, religión, comercio... pero sobre todo vínculos con Europa... hasta llegar a un presente en el que seguimos existiendo.

La memoria del pez es el contrapunto, la sombra en la pared en la que nos reflejamos para mostrar lo que seríamos si olvidáramos. Si perdiéramos esa memoria y ya no existiéramos más.

El objetivo de la obra es transmitir la importancia de la memoria y la historia. Educar en estos valores propios. Visualizar formas de vida y trabajo que no son habituales en una cultura presente, muy audiovisual por la televisión, pero poco cercana a nuestra realidad histórica y cultural. Reforzar la presencia y dignidad de la cultura que nos ha conducido hasta el presente. Ofrecer un marco de comprensión, de significado, al público, con respecto a nuestra propia cultura y presencia en el mundo.